# HELLOMOTO

Ongi etorri Motorolaren komunikazio mugikor digitalen mundura. Eskerrik asko Motorola W375 telefono mugikorra hautatzeagatik.



# Egiaztatu!




**Oharra:** baliteke zure telefonoa ez izatea irudikoaren berdin-berdina.

www.motorola.com

Telefono mugikorraren funtzio batzuk operadorearen aukeren eta sare-konfigurazioaren araberakoak dira. Bestalde, baliteke operadoreak funtzio batzuk ez aktibatzea eta/edo operadorearen sarearen konfigurazioak nolabait horien funtzionaltasuna mugatzea. Jarri harremanetan operadorearekin, erabilgarritasuna eta funtzionaltasuna kontsultatzeko. Produktuaren funtzio, ezaugarri eta bestelako zehaztasun guztiak, eta erabiltzailearen eskuliburu honetako informazioa, eguneratutako informazioan oinarrituta daude, eta gaur egun zehatzenak dira inprimatzeko unerako. Motorolak eskubidea du, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko.

MOTOROLA eta M logotipo estilizatua AEBetako Patenteen eta Marken bulegoan daude erregistratuta. Java eta Javan oinarritutako gainerako marka guztiak Sun Microsystems, Inc.-en marka komertzialak edo marka komertzial erregistratuak dira AEBetan eta beste herrialdeetan. Produktuen edo zerbitzuen izen guztiak beren jabeei dagozkie.

© Motorola, Inc. 2006.

Motorolaren erabiltzailearen eskuliburu honek duen informazioa zuzentzat jotzen da inprimatzeko unean. Motorolak, aurrez jakinarazi gabe, informazioa edo zehaztapenak aldatzeko eskubidea du. Motorolaren erabiltzaileen eskuliburuen edukia dagoen dagoenean emango da. Aplikatu beharreko legeak hala eskatzen duenean izan ezik, ez da inolako bermerik –berariazkorik edo inpliziturik– ematen eskuliburu honen zehaztapenari, fidagarritasunari edo edukiari dagokionez, baina merkaturatzeko eta asmo jakin batera egokitzeko berme inplizituetara mugatu gabe.

Produktuen zehaztasunak eta funtzioak aurrez jakinarazi gabe alda daitezke; alabaina, ahal dela, sarri eguneratzen ditugu erabiltzaileen eskuliburuak, produktuan egindako aldaketak horietan ere ager daitezen. Bestalde, nekez gertatuko den arren, zure eskuliburuaren bertsioak produktuaren oinarrizko funtzio guztiak azaltzen ez baditu, jakinaraz iezaguzu. Eskuliburuen bertsio eguneratuak Motorolaren web guneko erabiltzailearen atalean ere ikus ditzakezu: http://www.motorola.com.

# Edukia


**Menuen diagrama**......................8

**Segurtasunari buruzko informazioa**............................. 10

**Erabilera eta zaintza**................20

**Europako legeak betetzea** .......21

**Birziklatzeari buruzko informazioa**.............................23

**Funtsezko kontzeptuak**...........24

- Eskuliburu honi buruz .........24
- SIM txartela........................25
- Bateria................................25
- Piztea eta itzaltzea .............28
- Deitzea...............................29
- Deiari erantzutea ................29
- Telefono-zenbakia...............29

**Erakargarritasun nagusiak**......30

- Multimedia-mezuak.............30
- Txata ..................................32
- Kamera...............................33
- FM irratia erabiltzea............35
- USB konexioa .....................39

**Oinarrizko kontzeptuak**...........42

- Pantaila ..............................42
- Menuak ..............................46
- Testua idaztea ....................48
- Bolumena ........................... 51
- Nabigazio-tekla................... 51
- Esku libreko bozgorailua............52
- Kodeak eta pasahitzak........52
- Bateria egiaztatzea.............52

**Pertsonalizatzea** .....................53
Txirrin-mota .........................53
Ordua eta eguna.................54
Pantailaren hondoa.............54
Pantaila-babesa..................55
Pantailaren itxura................55
Erantzuteko aukerak ...........55
Agur pertsonala ..................56
Aukerako esku libreko moduaren funtzionamendua 56
**Deiak**....................................57
Azken deiak........................57
Berriro deitzea....................58
Deiak itzultzea....................58
Zenbakien bloka .................59
Deiak zain edo isilean.........59
Deia zain ............................59
Deia identifikatzea ..............60
Larrialdi-deiak ....................61
nazioarteko deiak ...............61
Tekla bat markatzea...........62
Ahots-postontzia.................62
Karaktere bereziak sartzea markaketa-sekuentzien barruan...............................64
**Beste zenbait funtzio**..............65
Dei-funtzio aurreratuak .......65
Telefono-aurkibidea ............67
Mezuak............................... 71
Txata ..................................73
Nabigatzailea......................73
Pertsonalizatzea................. 74
Deien iraupena eta kostua ..76
Esku libreko moduaren funtzionamendua ................77
Sarea .................................78
Antolatzaile pertsonala .......78
Segurtasuna .......................80
Denbora-pasa eta jokoak ....80

**Arazoak konpontzea**...............81

Lehen egiaztapena .............81

Hondoko argia desaktibatuta dagoenean, baliteke iruditzea telefonoak ez duela funtzionatzen......................81

Pantailak ez du argirik ........82

Telefonoak ez du dar-dar egiten .................................82

Mezuak: ‘introducir código especial’, ‘tarjeta SIM bloqueada; póngase en contacto con el operador’, ‘introduzca contraseña’ .......82

Teklatua ez dabil.................83

Ez dago seinale edo zerbitzurik ..83

Pantaila keinuka hasten da argazki bat ateratzean ........84

**AEK datuak** .............................85

**MOEren informazioa**................88

**Aurkibidea**...............................89

# Menuen diagrama**

## Menú principal

### Agenda

### Ultimas Llamadas

- Llamadas Recibidas
- Llamadas Realizadas
- Bloc de Notas
- Tiempo Llamadas
- Coste Llamada
- Tiempo de Datos
- Volumen de Datos

### Mensajes

- Crear
- Entrada
- Borrador
- Salida
- Notas Rápidas
- Buzón de Voz
- Msjes Navegador
- Serv. de Info
- Plantillas MMS

### Herramientas

- Calculadora
- Acc. Directos
- Despertador
- Cronómetro
- Chat
- Serv. Marcación
- SIM Toolkit
- Calendario
- Linterna

### Juegos

- Conf. Sonido

### Opciones WAP

- Iniciar WAP
- Acc. Directos
- Ir a URL
- Perfiles WAP
- Pág. Guardadas
- Historial
- Config. General

### Multimedia

- Cámara
- Imágenes
- Sonidos
- Radio FM

### Personalizar

- Pantalla Principal
- Menú Principal
- Interfaz
- Saludo
- Fondo de Pantalla
- Salvapantallas
- Marc. Rápida

### Configuración

(ikus hurrengo orrialdea)

** Hori da menu nagusiaren banaketa estandarra. Telefonoaren aukerak sare-zerbitzu erabilgarrien edo operadore bakoitzak konfiguratzeko moduaren arabera alda daitezke.

## Menú de Configuración

### Timbres

- Tipo
- Detalles

### Desvío Llamadas

- Llamadas de Voz
- Llamadas de Fax
- Llamadas de Datos
- Cancelar todo
- Estado Desvíos

### Llam. Entrante

- Temp Llamada
- Config. Coste
- Ident. de Llamada
- Opc. Respuesta
- Llam en Espera

### Config. Inicial

- Hora y Fecha
- Marcación 1 Tecla
- Config. Pantalla
- Iluminación
- Desplazamiento
- Idioma
- Tiempo de Carga PC
- DTMF
- Reinicializar
- Borrado General
- Dar formato al dispositivo de almacenamiento adicional
- Indicador Estado

### Estado Teléfono

- Mis Números
- Línea Activa
- Nivel Batería

### Manos Libres

- Resp. Automática

### Red

- Nueva Red
- Config. Red
- Redes Disponibles
- Mi Lista de Redes
- Tono de Servicio
- Tono Llam. Perdida
- Selección de Banda

### Seguridad

- Bloq. Teléfono
- Marcación Fija
- Bloqueo Llamada
- Solicitar PIN
- Contraseñas Nuevas

### Linterna

- Linterna

** Hori da menu nagusiaren banaketa estandarra. Telefonoaren aukerak sare-zerbitzu erabilgarrien edo operadore bakoitzak konfiguratzeko moduaren arabera alda daitezke.

# Informazio orokorra eta segurtasunari buruzkoa

ERABILERA SEGURUARI ETA ERAGINKORRARI BURUZKO INFORMAZIO GARRANTZITSUA. IRAKURRI INFORMAZIO HAU TELEFONOA ERABILI AURRETIK.[1]

## Irrati-maiztasuneko (IM) energiarekiko esposizioa

Zure telefonoak transmisore eta hartzaile bana ditu. Piztuta dagonean, IM energia jasotzen eta transmititzen du. Telefono bidez komunikatzen zarenean, zure deiaz arduratzen den sistemak zure telefonoak transmititzen duen potentzia-maila kontrolatzen du.

Motorola telefonoa bereziki diseinatuta dago gizakiak IM energiaren eraginpean egoteari buruz herrialde bakoitzean dauden legeak betetzeko.

## Funtzionamenduari buruzko neurriak

Telefonoak behar bezala funtziona dezan eta gizakiak jasotzen duen IM energiaren eragina dagokien arauetan proposatutako zuzentarauen barruan dagoela bermatzeko, jarraitu beti hurrengo jarraibideei.

## Kanpoko antena zaintzea

Zure telefonoak kanpoko antena badu, erabili Motorolak emandako edo homologatutako antena bakarrik. Baimendu gabeko antenek, aldaketek edo erantsiek telefonoan kalteak eragin ditzakete eta/edo herrialde bakoitzean ezarritako legeak urra daitezke.

EZ eutsi kanpoko antenari telefonoa ERABILTZEN ari zarenean. Kanpoko antenari eusteak deiaren kalitatean eragin dezake, eta telefonoak behar baino potentzia-maila handiagoan funtzionatzea eragin dezake.

## Telefonoa erabiltzea

Deiak egitean edo jasotzean, erabili telefonoa telefono finkoak erabiltzen dituzun bezalaxe.

## Erabilera, unitatea soinean daramazula: Ahots-komunikazioa

IM energiaren eraginaren jarraibideekin lotutako hitzarmenak betetzeko, telefonoa soinean baduzu ahots-komunikazioa egiten ari zarela, jarri beti telefonoa Motorolak telefono mugikor horrentzako emandako edo homologatutako euskarri, zorro, kutxa edo tresna batean, holakorik izanez gero. Motorolak homologatutako osagarriak erabiltzen ez badituzu, IM energiaren eraginari buruzko zuzentarauek ezarritako mugak gaindi daitezke.

Motorolak homologatutako edo emandako gorputz-osagarriren bat erabiltzen ez baduzu eta telefono mugikorra normal erabiltzeko posizioan ez baduzu, ziurtatu telefonoa eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ko distantzian daudela transmititzen ari denean.

## Datuak erabiltzea

Telefonoaren datu-funtzioren bat erabiltzen baduzu, kable-osagarriarekin edo hori gabe, jarri telefono mugikorra eta antena gorputzetik gutxienez 2,5 cm-ra.

## Homologatutako osagarriak

Motorolak homologatu gabeko osagarriak erabiltzeak –bateriak, antenak eta estalki aldagarriak barne, baina mugatu gabe– IM energiaren eraginaren arauetan ezarritako mugen gainetik egotea eragin dezake. Motorolak homologatutako osagarri-zerrenda bat duzu www.motorola.com web orrian.

# IM energia: interferentziak eta bateragarritasuna

**Oharra:** ia gailu elektroniko guztiek izan ditzakete interferentziak kanpo-iturrietako IM energiarekin, ongi babestuta ez badaude eta IM energiarekiko bateragarritasuna eskaintzeko diseinatuta edo konfiguratuta ez badaude. Batzuetan, telefonoak interferentziak eragin ditzake.

**Oharra:** gailu honek FCC araudiaren 15. atala betetzen du. Erabili ahal izateko bi baldintza hauek bete behar ditu: (1) gailu honek ez du interferentzia kaltegarririk sortu behar eta (2) jasotzen duen edozein interferentzia onartu behar du, nahi ez den funtzionamendua eragin dezaketenak barne.

## Eraikinak eta instalazioak

Itzali telefonoa hala adierazten duten oharrak edo kartelak dauden lekuetan. Leku horiek kanpoko IMen energiarekiko sentikorrak diren ekipoak erabiltzen dituzten ospitaleak edo instalazio sanitarioak izan daitezke.

## Hegazkinak

Itzali gailu mugikorra tripulazioak hala adierazten duen guztietan. Gailuak hegaldietarako moduren bat edo antzeko ezaugarriren bat badu, kontsultatu tripulazioari erabil dezakezun jakiteko.

Gailuak telefonoa bakarrik pizteko funtzioren bat badu, desaktibatu hegazkinera igo aurretik edo gailu mugikorrak erabiltzea mugatuta dagoen leku batera sartu aurretik.

## Gailu medikoak

### Taupada-markagailua

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek gomendatzen dute telefono mugikorren eta taupada-markagailuen artean, gutxienez, 15 zentimetroko distantzia uztea.

Taupada-markagailua duten pertsonek:

- Telefonoa BETI taupada-markagailutik 15 zentimetrora eduki behar dute, piztuta dagoenean.
- INOIZ EZ dute telefonoa bular pareko poltsikoan eraman behar.
- Taupada-markagailuaren kontrako aldeko belarria erabili behar dute interferentziak izateko aukera murrizteko.
- Telefonoa berehala itzali behar dute arrazoiren batengatik interferentziak sortzen ari dela susmatzen badute.

### Entzuteko gailuak

Haririk gabeko zenbait telefono digitalek entzuteko zenbait gailurekin interferentziak sor ditzakete. Horrelako interferentziak sortuz gero, mesedez kontsultatu entzuteko gailuaren fabrikatzaileari arazoari alternatibaren bat aurkitzeko.

### Beste gailu mediko batzuk

Beste gailu medikoren bat erabiltzen baduzu, kontsultatu gailuaren fabrikatzaileari IM energiaren aurka behar bezala babestuta dagoen ala ez jakiteko. Agian zure sendagileak lagunduko dizu informazio hori eskuratzen.

# Gidatu bitartean erabiltzea

Kontsultatu gidatu bitartean telefono mugikorrak erabiltzeari buruzko zure herrialdeko legeak. Bete itzazu beti.

Gidatu bitartean telefonoa erabiltzen duzunean, gogoan izan hau:

- Kontuz gidatu eta jarri arreta osoa errepidean. Batzuetan, telefonoa erabiltzeak distraitu zaitzake. Eten ezazu deia, arretaz gidatu ezin baduzu.
- Erabilgarri badago, erabili esku libreko funtzioa.
- Aldendu errepidetik edo gelditu ibilgailua dei bat egin edo jaso aurretik, egoerak hala eskatzen badu.

"Telefono mugikorrentzako segurtasunari buruzko aholkuak" atalean, hau da, eskuliburu honen amaieran edo Motorolaren web orrian, arduraz gidatzeko jardunbide onenak kontsulta ditzakezu: `www.motorola.com/callsmart`.

# Erabilerari buruzko oharrak

## Airbaga duten ibilgailuentzat

Ez jarri telefonoa airbagaren gainean edo airbaga irekitzen den lekuan. Airbagak indar handiz puzten dira. Telefonoa airbaga puzten den lekuan badago eta airbaga irekitzen bada, telefonoa indar handiz atera daiteke eta ibilgailuko bidaiariei kalte larriak eragin diezazkieke.

## Zerbitzuguneak

Egin kasu irrati-maiztasuneko ekipoen erabilerari buruzko zerbitzuguneetako seinaleei. Langile baimenduek hala adieraziz gero, itzali telefono mugikorra.

## Lehergaiak egon daitezkeen inguruak

Deskonektatu mugikorra lehergaiak egon daitezkeen inguruetara sartu aurretik. Ez utzi, instalatu edo kargatu bateriarik inguru horietan. Lehergaiak egon daitezkeen inguru batean txinpartak sortzen badira, leherketaren bat edo suteren bat gerta daiteke, eta pertsonei lesioak sor diezazkieke, baita heriotza ere.

**Oharra:** besteak beste, erregaiak hartzeko guneak –adibidez, itsasontzien bizkarraren azpiko guneak–, erregaiak edo produktu kimikoak biltegiratzeko edo garraiatzeko instalazioak eta airean substantzia kimikoak edo partikulak –hala nola, erregai-hautsa edo metal-hautsak– dauden eremuak dira aipatutako horiek (leherketak gertatzeko arriskua dutenak). Lehergaiak egon daitezkeen guneak gehienetan adierazita daude, baina ez beti.

## Detonazioguneak eta detonagailuak

Detonazio-eragiketekin interferentziak saihesteko, itzali telefonoa detonagailuetatik gertu zaudenean, detonaziogunean zaudenean edo “Itzali gailu elektronikoak” oharra dagoen eremuetan zaudenean. Egin kasu seinale eta jarraibide guztiei.

## Hondatutako produktuak

Telefonoa edo bateria uretan sartu bada, zulatu egin bada edo erortzean kolpe handi bat jaso badu, erabili aurretik eraman Motorolak baimendutako laguntza teknikoko zentro batera han hondatuta dagoen ala ez zehatz dezaten. Ez saiatu lehortzen kanpoko bero-iturri baten bidez, adibidez, mikrouhinaren bitartez.

## Bateriak eta kargagailuak

Bateriek kalte materialak eta lesioak eragin ditzakete –erredurak, adibidez–, material eroaleren batek (hala nola, bitxiak, giltzak edo kate metalikoak) terminalak ukitzen baditu. Material eroaleak zirkuitu elektrikoa itxi dezake (zirkuitulaburra) eta gehiegi berotu. Kontuz ibili kargatutako bateria bat erabiltzean, batik bat, patrikan, eskuko poltsan edo objektu metalikoak dituen beste nonbait sartzean. **Erabili beti Motorola Original™ bateriak eta kargagailuak.**

**Kontuz:** kalte pertsonalik egon ez dadin, ez bota bateria sutara.

Bateriak, kargagailuak edo telefonoak ikurrak izan ditzakete. Hau da ikurren esanahia:

| Ikurra | Definizioa |
|---|---|
|  | Segurtasun-informazio garrantzitsua adierazten du. |
|  | Telefonoa edo bateria ez da sutara bota behar. |
|  | Beharbada bateria edo telefonoa tokiko legeen arabera birziklatu behar da. Kontsultatu tokiko agintari eskudunekin informazio gehiago lortzeko. |
|  | Bateria edo telefonoa ez dira zakarretara bota behar. |
| ⊖ Li Ion BATT ⊕ | Telefonoak litio--ioizko bateria du. |

## Itotzeko arriskua

Telefonoak edo haren osagarriak pieza desmuntagarriak izan ditzakete, eta horiekin ito egin daitezke haur txikiak. Ez utzi telefonoa eta haren osagarriak haur txikien eskueran.

## Beirazko osagaiak

Baliteke gailu mugikorreko osagai batzuk beiraz eginda egotea. Beira hori hautsi egin daiteke produktua gainazal gogor batera erortzen bada edo kolpe handia hartzen badu. Beira apurtzen bada, ez ukitu eta ez saiatu kentzen. Ez erabili gailu mugikorra zerbitzu-zentro gaitu batean aldatu arte.

## Epilepsia-krisiak edo zorabioak

Pertsona batzuek epilepsia--krisiak edo zorabioak izan ditzakete keinuka dauden argien eraginpean, hala nola, telebista ikustean edo bideojokoetan aritzean. Litekeena da epilepsia-krisi edo zorabio horiek sekula horrelakorik gertatu ez zaien pertsonei ere gertatzea.

Epilepsia-krisirik edo zorabiorik izan baduzu edo horrelako familia-aurrekaririk baduzu, galdetu medikuari mugikorrarekin bideo-jokoetan jolasean aritu edo mugikorraren argi keinukarien funtzioa erabili baino lehen. (Argi keinukarien funtzioa ezin da erabili produktu guztietan).

Gurasoek kontrolatu egin behar dituzte seme-alaben telefonoko bideo-jokoen erabilerak edo argi keinukarien aukerak. Sintoma hauetakoren bat duen pertsona orok erabiltzeari utzi eta medikuarengana joan behar du:

konbultsioak, begien edo muskuluen mugimendu konbultsiboak, konortea galtzea, oharkabeko mugimenduak edo desorientazioa.

Sintoma horiek gertatzeko aukerak mugatzeko, hartu neurri hauek:

- Ez jolastu edo ez erabili argi keinukariak dituen aukerarik nekatuta edo loguratuta bazaude.
- Hartu atseden, gutxienez, orduko 15 minutuan.
- Jolastu argiak piztuta dauden lekuetan.
- Jolasteko, ipini pantaila begietatik ahalik eta urrunen.

## Bolumen altuaren erabilerari buruzko oharra

Entzumena kalte dezake musika edo bestelako soinuak oso ozen entzuteak.

## Errepikatzen diren mugimenduengatik kalteak

Errepikatzen diren ekintzak egitean, hala nola teklak sakatzea edo testu-karaktereak sartzea hatzez, batzuetan, eskuetako, besoetako, sorbaldako, lepoko edo gorputzeko beste ataletako mina senti daiteke. Segitu jarraibide hauei tendinitisa, karpoko tunelaren sindromea edo hezurretako edo muskuluetako beste lesiorik ez izateko:

- Hartu atseden, gutxienez, jokatutako ordu bakoitzeko 15 minutu.

- Jolasean zabiltzala eskuetan, eskumuturretan edo besoetan nekea edo mina sentitzen baduzu, gelditu eta hartu atseden hainbat orduz berriz jolasten hasi baino lehen.
- Jolasean ari zarela edo jolastu ondoren, oraindik ere, eskuak, eskumuturrak edo besoak minduta badituzu, ez jolastu gehiago eta galdetu medikuari.

1. Dokumentu honetako informazioak 2005eko urtarrilaren 28ra arte argitaratu diren erabilera-eskuliburuetan dagoen segurtasunari buruzko informazio orokorra ordezten du.

# Erabilera eta zaintza

Motorola telefonoa babesteko, hauetatik urrun eduki:

**Mota guztietako likidoak**

Ez utzi telefonoa uraren, euriaren, kanpoko hezetasunaren, izerdiaren edo bestelako hezetasun-moten eraginpean.

**Bero edo hotz handia**

Saihestu -10 °C-tik beherako edo 45 °C-tik gorako tenperaturak.

**Mikrouhinak**

Ez saiatu telefonoa mikrouhin-labe batean lehortzen.

**Hautsa eta zikinkeria**

Ez utzi telefonoa hautsaren, zikinkeriaren, harearen, janariaren edo desegokiak diren beste hainbat materialen mende.

**Garbitzeko produktuak**

Telefonoa garbitzeko, erabili zapi leun eta lehorra. Ez erabili alkoholik edo bestelako garbigarririk.

**Zorua**

Telefonoa ez dadila eror.

# Europako Batasuneko jarraibideekiko adostasun-deklarazioa

ADOSTASUN-DEKLARAZIOA -
1890/2000 araudia, 2005eko azaroaren 20koa

| | |
|---|---|
| Erreferentzia | LV012/05/356393/D |

Guk –Motorola Inc, US Highway N 45, IL 60048, AEB– gure erantzukizunaren baldintzapean aitortzen dugu produktu honek

| | |
|---|---|
| Izena/Mota | Motorola W375 |
| Deskribapena | GSM 900/1800/1900 GPRS 8 Klaseko telefonoa. Irratidun telefono mugikorra. |
| Oharra | |

betetzen dituela:

- bete beharreko baldintzak eta 1999/5/EE jarraibideko gaiari buruzko gainerako xedapenak
- Europako Batasuneko gaiari buruzko gainerako jarraibideak




Aurreko taulan Produktuaren Onarpen Zenbakiaren ohiko adibide bat ikus daiteke.

Produktu honek betetzen ditu arau-dokumentu edo -estandar hauek, batez ere, zuzentarauaren 3. artikuluko baldintza espezifikoak

| | |
|---|---|
| 3.1.a artikulua | EN50360:2001, EN60950:2000 |
| 3.1.b artikulua | EN 301 489-01 V1.4.1: 08.2002 EN 301 489-17 V1.1.1:09.2000 EN 301 489-07 V1 .2.1: 08-2002 |
| 3.2 artikulua | ETSI EN301 511 V9.0.2 EN 300 328-2 V1.2.1 |
| 10 artikulua | Hitzarmenaren adostasun-prozesua eta V. eranskina goian aipatutako zuzentarauaren oinarrizko baldintza guztiei aplikatu zaizkie, BABT0168 erabiliz atal jakinarazi gisa. |

Lars S. Nielsen
Zuzendaria
Motorola GmbH
Husumerstrasse 251
D242941 Flensburg
Alemania
Telefonoa: +49 461 803 0
Fax: +49 4618031829
h.el.: rtte@motorola.com



Motorola Inc.-en idatzizko onarpenik gabe, dokumentu honek ez du baliorik izango homologazio- edo inportazio-froga gisa.

# Birziklatzea ingurumena zaintzeko



Ikur hau Motorolaren produktu batean ikusten baduzu, ez bota etxeko zakarretara.

# Telefono mugikorrak eta osagarriak birziklatzea

Ez bota telefono mugikorrak eta osagarri elektronikoak, adibidez, kargagailuak eta entzungailuak, etxeko zakarretara. Herrialde batzuetan badaude ekipo elektronikoak biltzeko sistemak. Jarri harremanetan zure herrialdeko agintariekin xehetasun gehiago eskuratzeko. Biltzeko sistema horiek erabilgarri ez badaude, nahi ez dituzun telefono mugikorrak eta osagarri elektronikoak itzuli zure herrialdeko Motorolaren edozein zerbitzu-zentrora.

# Funtsezko kontzeptuak

**Oharra:** Telefonoa lehen aldiz erabili baino lehen, irakurri arretaz erabiltzailearen eskuliburua, segurtasun-informazio garrantzitsua baitago. Berrikusi informazio hori aldian behin, telefonoa segurtasunez nola erabili gogoratzeko.

## Eskuliburu honi buruz

Menuko funtzioetara nola joan honela adierazten du eskuliburu honek:

**Joan hona:** Sakatu ☰ > **Ultimas Llamadas** > **Llamadas Realizadas.**

Adibide honek erakusten du pantaila nagusian ☰ sakatu behar dela menua irekitzeko; **Ultimas Llamadas** nabarmendu eta hautatu behar dela, eta, ondoren, **Llamadas Realizadas** nabarmendu eta hautatu behar dela.

Sakatu ✣ menuan zehar mugitzeko eta funtzio bat nabarmentzeko. Sakatu **Selec.** tekla menuko nabarmendutako funtzioa hautatzeko.

| Ikurrak | |
|---|---|
| ⊕Ⓐ | Sare edo kontratu baten mende dauden funtzioak adierazten ditu, eta, beraz, agian eremu guztietan erabili ezin direnak. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan operadorearekin. |
| ⊕▯ | Aukerako osagarriak behar dituzten funtzioak adierazten ditu. |

# SIM txartela

SIM txartelak informazio pertsonala du, adibidez, telefono-zenbakia eta telefono-aurkibideko sarrerak.

**Kontuz:** ez tolestu eta ez urratu SIM txartela. Ahal dela ez dezala ukitu elektrizitate estatikoa, ura edo zikinkeria.

1



2



# Bateria

## Bateria instalatzea

1



2



3



4



**Oharra:** bateria luzaroan kenduta izan baduzu, data eta ordua berriz

konfiguratzeko eskatuko dizu telefonoak. Mezuari kasurik ez egitea erabakitzen baduzu, data eta ordua gaizki konfiguratuta geratuko dira.

Horrela sar ditzakezu egun eta ordu zuzenak:

**Joan hona:** Sakatu [menu] > **Configuración** > **Config. Inicial** > **Hora y Fecha**.

Bestalde, bateria kenduta segundo gutxi egiten badituzu (adibidez, SIM txartela aldatzeko), sistemak ez dizu eskatuko eguna eta ordua berriz ezartzeko, eta, eskatzen badizu, **Atrás** hauta dezakezu egunaren eta orduaren pantailan, eta erlojuak atzerapen txiki bat besterik ez du izango.

## Bateria kargatzea



**Elektrizitatearen konexio-ataka**

Kargagailua konekta daiteke.

Telefonoa erabili ahal izateko, erabat kargatu behar duzu bateria. Bateria berriak ez dira guztiz kargatuta egoten. Entxufatu USB txikiaren kablea telefonora eta korronte-hartune batera edo PC batera. (USB txikiaren kableak kargatzeko eta USB konexioa egiteko bakarrik balio du).

Bateria erabat kargatuta dagoenean, telefonoak **Carga Completa** adierazten du.

Motorola telefonoa ordenagailu bateko USB ataka baten bidez karga daiteke. Ordenagailu batzuek software-kontrolatzaileak behar dituzte (eta horiek ez dira kaxan sartzen, baina `www.motorola.com` web orritik deskarga daitezke).

Kargatzeko behar den denbora ordenagailuaren ahalmenaren araberakoa da. Baliteke telefonoa erabat kargatzeko hamabi ordu behar izatea.

**Iradokizuna:** ezin da bateria gainkargatu. Bateriak hobeto funtzionatuko du hainbat aldiz kargatu eta deskargatu ondoren.

Bateria berriak zertxobait kargatuta etortzen dira. Telefonoa erabili ahal izateko, bateria instalatu eta kargatu egin behar duzu, ondoren azaltzen den bezalaxe. Bateria batzuek hobeto funtzionatzen dute hainbat aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren.

## Bateriari buruzko iradokizunak

Bateriaren iraupena sarearen, estalduraren, giro-tenperaturaren eta erabiltzen dituzun funtzioen eta osagarrien arabera dago.

- Erabili beti Motorola Original™ bateriak eta kargagailuak. Telefonoaren bermeak ez ditu bere gain hartzen Motorolak homologatu gabeko bateriak eta kargagailuak erabiltzeagatik sortutako kalteak.
- Bateria berriek edo denbora askoan biltegian egon direnek, agian, denbora gehiago beharko dute kargatzeko.
- Bateria kargatzean, saiatu giro-tenperaturan izaten.
- Bateria denbora luzean erabili behar ez baduzu, jaso deskargatuta leku fresko, lehor eta ilunean, adibidez, hozkailuan.

- Inoiz ez eduki bateria -10 °C baino gutxiagoko edo 45 °C baino gehiagoko tenperaturan. Autotik ateratzen zarenean, har ezazu beti telefonoa.
- Normala da bateriak gastatuz joatea eta kargatzeko gero eta denbora gehiago behar izatea. Bateriaren iraupena asko jaitsi dela ohartu bazara, agian berri bategatik ordezteko unea izango da.

Jarri harremanetan tokiko birziklatze-zentroarekin, bateria behar bezala botatzeko.

**Oharra:** ez bota inoiz bateriak sutara, lehertu egin baitaitezke.

Telefonoa erabili aurretik, irakurri bateriaren segurtasun-informazioa; Informazio orokorraren atalean eta eskuliburu honen amaieran dauden ertz griseko orrietan dago.

# Piztea eta itzaltzea

Telefonoa pizteko, luze sakatu tekla 2 segundoz.




Eskatzen badizu, idatzi SIM txartelaren PIN kodea edo desblokeatze-kodea.

**Kontuz:** hiru aldiz segidan okerreko PIN kodea sartzen baduzu, SIM txartela desaktibatu egingo da eta telefonoak **SIM Bloqueada** mezua bistaratuko du. Jarri harremanetan operadorearekin.

Telefonoa itzaltzeko, luze sakatu tekla 2 segundoz.

# Deitzea

Deitzeko, sartu telefono-zenbakia eta sakatu [ ].

Deia amaitzeko, sakatu [ ].

# Deiari erantzutea

Telefonoak jotzean eta/edo dar-dar egitean, sakatu [ ] erantzuteko.

Deia amaitzeko, sakatu [ ].

Gainera, funtzio anitzeko teklaren aukera aktibatuta badago, sakatu edozein tekla dei bati erantzuteko edo deia amaitzeko.

**Joan hona:** Sakatu [ ] > **Configuración** > **Llam. Entrante** > **Opc. Respuesta.**

# Telefono-zenbakia

Zure telefono-zenbakia ikusteko:

Sakatu [ ] > **Configuración** > **Estado Teléfono** > **Mis Números.**

SIM txartelean izena eta telefono-zenbakia gorde edo aldatzeko, sakatu **Ver** tekla zenbakia bistaratuta dagoenean. Zure telefono-zenbakia zein den ez badakizu, jo operadorearengana.

# Erakargarritasun nagusiak

## Multimedia-mezuak

Mezuen funtzioei buruzko informazio gehiago izateko, ikus 71. orrialdea.

### Multimedia-mezua bidaltzea

*MMS* (multimedia-mezuen zerbitzua) mezu bateko orrietan testua eta multimedia-objektuak (argazkiak, irudiak, animazioak edo soinuak) sar daitezke. Multimedia-mezuak MMS duten beste telefonoetara eta helbide elektronikoetara bidal ditzakezu.

**Joan hona:** Sakatu [menu] > **Mensajes** > **Crear** > **Crear Mensaje** > **SMS/EMS, MMS edo Plantillas MMS**

**Oharra: Plantillas MMS** txantiloiak ezin dira deskargatu edo handitu. Aurrez zehaztutako txantiloiak bakarrik erabil daitezke.

**1** Sakatu teklak testua orrian idazteko. Testua idazteari buruz informazio gehiago lortzeko, ikus 48. orrialdea.

Orrian **irudi, soinu edo bestelako objekturen** bat sartzeko, sakatu **Introd.** edo [menu] > **Insertar.** Hautatu fitxategi-mota eta, gero, fitxategia.

Mezuan beste diapositiba bat sartzeko, sartu testu-objektuak orrian eta sakatu > **Insertar** > **Añadir Diapos**. Orri berrian testu eta objektu gehiago sar daitezke.

**2** Mezua amaitzean, sakatu **Aceptar**.

**3** Gehitu pertsona bat edo gehiago.

**Telefono-aurkibideko sarrera** bat hautatzeko, nabarmendu eta sakatu **Añadir**. Egin berriz urrats hori aurkibideko beste sarrerak gehitzeko.

Zenbaki berri bat **sartzeko**, nabarmendu **[Introd. Número]** eta sakatu **Selec.**

Zenbaki berri bat **sartu eta gordetzeko**, nabarmendu **[Nueva Entrada]** eta sakatu **Selec.** Sarrera SIM txartelean edo telefonoan gorde daiteke.

**4** Zenbakiak edo helbideak sartutakoan, sakatu **Fin.** Telefonoak mezu-eremuak bistaratzen ditu.

Mezuaren **gaia** idazteko, nabarmendu **Asunto** eta sakatu **Cambiar.**

Mezua jaso **izanaren jakinarazpena** eskatzeko, nabarmendu **Destinatarios,** sakatu **Cambiar** eta, gero, **Añadir**.

**5** Sakatu **Enviar** mezua bidaltzeko.

Mezua **bertan behera utzi edo zirriborro** gisa gordetzeko, sakatu > **Guardar Mensaje.**

**6** Mezua **bertan behera uzteko**, joan **Salida** aukerara. Baldin eta oraindik mezua bidaltzen ari bada, nabarmendu eta sakatu > **Cancelar.**

**Oharra:** Tapa itxi baino lehen, itxaron telefonoan mezu hau bistaratu arte: **Enviando Mensaje....**

## Multimedia-mezu bat jasotzea

Multimedia-mezu bat jasotzean, telefonoak alerta bat ematen du eta pantailan **Nuevo Mensaje** bistaratzen da, mezu-adierazlearen ondoan (adibidez, ).

Sakatu **Leer** tekla mezua irekitzeko.

Multimedia-mezu batek multimedia-objektuak baditu:

- mezua irakurri ahala azalduko dira argazkiak, irudiak eta animazioak.
- desplazamendu-barra bistaratzean erreproduzituko dira musika-fitxategiak.

# Txata

Hautatu **Chat Herramientas** menuan, lagunekin harremanetan egoteko. Denbora aurrezteko esaldi arrunta sar dezakezu, adibidez: **Estoy reunido** (‘bilera batean nago’) edo **Cuídate** (‘ondo ibili’). Sakatu **Nuevo** > **Msje:** > **Introd.**

# Kamera

Telefonoaren kamera horrela aktiba dezakezu menuen sistematik:

**Joan hona:** Sakatu ☰ > **Multimedia** > **Cámara.**

Bisoreko irudi aktiboa pantailan bistaratuko da.




Bideratu objektiboa argazkia atera nahi diozun elementurantz eta, gero:

1 Sakatu **Capturar** argazkia ateratzeko.
2 Sakatu **Guardar** gordetzeko aukerak ikusteko. Argazkia gorde nahi baduzu, eman laugarren pausoa.
3 Sakatu **Descart**. argazkia ezabatu eta bisore aktibora itzultzeko.
4 Joan **Enviar en Mensaje, Solo Almacenar, Aplicar como Fondo Pantalla, Aplicar como Salvapantallas** edo **Aplicar como Entrada Agenda** aukeretara, eta sakatu **Selec**.

**Oharra:** argazki bat ateratzean pantailak dar-dar egiten badu, baliteke beste maiztasun bat hautatu behar izatea, **Refresco** konfiguratzeko. Adibidez, **Refresco** aukeraren konfigurazioa 50 Hz-ekoa bada, aldatu 60 Hz-era, eta saiatu berriz argazkia ateratzen.

**Joan hona:** Sakatu [menu] > **Multimedia** > **Cámara** > [menu] > **Config. Cámara** > **Refresco**

Bisore aktibotik, sakatu [menu] **Menú Imágenes** menuan sartzeko:

| Aukera |
|---|
| **Ir a Imágenes**<br>Irudien liburutegira joateko. |
| **Captura Automática**<br>Bost edo hamar segundora automatikoki argazkia atera dezan konfiguratzen du kamera. |
| **Config. Cámara**<br>Irudiaren konfigurazioa doitzen du. Konfigurazioan hauek sartzen dira: **Condiciones de Luz, Efecto Especial, Exposición, Resolución, Sonido Obturador, Calidad Imagen** eta **Refresco**. |
| **Espacio Disponible**<br>Erabilitako memoria eta libre dagoena egiaztatzen du. |

Argazkia ateratakoan (**Capturar**), irudia gordetzeko aukera duzu (**Guardar** la imagen). Hauek dira gordetzeko aukerak:

| Aukera |
|---|
| **Enviar en Mensaje**<br>Ateratako argazkiarekin MMS mezu bat abiaraziko da. MMS mezua editatu eta ateratako argazkiarekin bidal dezakezu. Gainera, ahots-ohar bat ere gehi dezakezu. |
| **Solo Almacenar**<br>Ateratako argazkia **Imágenes** aukeran gordeko da. |
| **Aplicar como Fondo Pantalla**<br>Ateratako argazkia pantaila-hondo gisa jarriko da. |
| **Aplicar como Salvapantallas**<br>Ateratako argazkia pantaila-babes gisa jarriko da. |

| Aukera |
| --- |
| **Aplicar como Entrada Agenda**<br>Irudia aurkibidean (**Agenda**) gordeko da. |

# FM irratia erabiltzea

FM irratiko bederatzi kanal entzun eta programa ditzakezu.

## FM irratia piztea

**Joan hona:** Sakatu [menu] > **Multimedia** > **Radio FM.**

Lehen aldiz erabiltzean, FM irratiak automatikoki sintonizatuko du erabil daitekeen maiztasun txikiena. Gero, erabilitako azken maiztasuna sintonizatuko du. Sakatu [nabigazio-tekla] gora eta behera edo erabili alboko bolumen-tekla, bolumena handitu edo txikitzeko.




Sakatu [menu] > **Silenciar** irteerako bolumena isiltzeko, edota sakatu [menu] > **No Silenciar** bolumen-mailara itzultzeko.

**Oharra:** FM irratiak funtzionatzeko, entzungailua konektatu behar da telefonoan. Entzungailua sartu gabe pizten saiatzen bazara, telefonoaren pantailan mezu hau azalduko da: **Inserte el auricular.**

**Oharra:** entzungailuek antenaren funtzioa egiten dute; beraz, FM irratiaren kalitatea konektatutako entzungailu-motaren araberakoa izango da. Irratia kalitate gutxiagorekin entzungo da, baldin eta egokigailuaren bidez (2,5 - 3,5 mm) Motorolaren 3,5 mm-koak ez diren entzungailuak konektatzen badira edo entzungailuak korapilatuta edo kiribilduta badaude.

**Oharra:** Tapa itxiarekin FM irratia entzuten segitzeko, lehenbizi sakatu **Ocultar** FM irratia ezkutatzeko.

## FM irratia sintonizatzea

1 Sakatu ☰ > **Multimedia** eta joan FM irratira.
2 Sakatu ⬩ ezkerrera edo eskuinera, maiztasuna handitu edo txikitzeko. Tekla bat sakatzen duzun bakoitzean, maiztasuna 0,5 MHz-ean handitu edo txikituko da.
3 Luze sakatu ⬩ eskuinera edo ezkerrera bilaketa-funtzioa aktibatzeko. FM irratiak erabil dezakeen hurrengo maiztasuna bilatuko du. Bilatzen jarraitzeko, sakatu berriro ⬩ Sakatu ☰ > **Establ. Frecuencia** kanala gordetzeko.

## Aurrez konfiguratutako irrati-kanalak erabiltzea

Aurrez konfiguratutako bederatzi irrati-kanal gorde daitezke.

Aurrez konfiguratutako irrati-kanalak konfiguratzea

1 Nahi duzun maiztasuna sintonizatzeko sakatu ezkerrera edo eskuinera.
2 Luze sakatu zenbakizko tekla bat, aurrez konfiguratutako maiztasuna zenbaki horretan gordetzeko.

### Aurrez konfiguratutako irrati-kanal bat hautatzea

Sakatu zenbakizko teklak, dagozkien aurrez zehaztutako irrati-kanalak hautatzeko.

## FM irratia hautatzea

Irrati-maiztasuna eskuz konfiguratzeko eta maiztasun-zerrenda bistaratzeko edo editatzeko aukera dago.

### Maiztasuna konfiguratzea




1 Sakatu eta joan **Establ. Frecuencia** aukerara. Sakatu **Selec**.
2 Erabili zenbakizko teklak, nahi duzun maiztasuna sartzeko. Sakatu # 0 edo 5eko puntu dezimal bat sartzeko.
3 Sakatu **Aceptar**.

## Kanalen zerrenda bistaratzea edo editatzea

1 Sakatu ≡ eta joan **Emisoras Guardadas** aukerara. Sakatu **Selec.**

2 Nahi duzun kanala hautatzeko teklak erabili edo sakatu ◊ kanalera joateko eta, gero, sakatu ≡. > **Editar**.

3 Erabili zenbakizko teklak, izena (**Nombre**) eta maiztasuna (**Frecuencia**) sartzeko.

4 Sakatu **Aceptar**.

## FM irratia erreproduzitzea bozgorailuaren edo entzungailuen bidez

Sakatu ≡, joan **Altavoz** aukerara eta, gero, sakatu **Selec**. Entzungailuen bidez FM irratia erreproduzitzeko, sakatu ≡; joan **Auriculares** aukerara eta, gero, sakatu **Selec**.

**Oharra:** FM irratia bozgorailu bidez erreproduzitzeko, entzungailuak konektatu behar dizkiozu telefonoari.

## FM irratia itzaltzea

Irratia itzaltzeko, sakatu ≡ > **Multimedia** > **Radio FM** > ≡ > **Cerrar**.



# USB konexioa

Telefonoa USB bidez karga daiteke PC batekiko konexioaren bidez. Bestalde, PC batekiko edo bestelako USB gailu batekiko konexioaren bidez kargatu edo deskarga ditzakezu fitxategiak.

**Oharra:** USB mugikorrak Windows 2000 eta horren ondorengo bertsioak onartzen ditu. Ez du Mac-ik onartzen.

Funtzio hau erabiltzeko:

1. Sartu USB kablea telefonoaren ezkerreko aldeko USB atakan. Telefonoak hau bistaratuko du: **¿Desea conectar el teléfono como dispositivo de almacenamiento?.**
2. Sakatu **Sí** telefonoa USB biltegiratze-gailu eramangarri gisa erabiltzeko.

**Oharra:** telefonoa biltegiratze-modu masiboan dagoenean, ezingo duzu deirik jaso, ez egin, ez bestelako funtziorik erabili. Deskonektatzen baduzu, funtzionamendu arrunta izango du.

**Bestela,**

Sakatu **No** USB bidez kargatzeko aukera aktibatzeko, gailua PC batera konektatuta badago.

Deskargatutako fitxategiak horrela bistara daitezke: sakatu ☰ > **Multimedia** > **Imágenes** edo **Sonidos** > **Dispositivo de almacenamiento adicional**.

Zure telefonoak 500 kb-eko memoria du. Gehienez, 100 kb-eko multimedia-elementuak deskarga daitezke. Gehienez, 100 kb-eko irudiak bidal eta jaso daitezke.

**Oharra:** memoria-tarte horretatik gora gordetzen diren fitxategi guztiak ezabatu egingo dira. Dagokien tokian gordetako fitxategiak ez dira ezabatuko.

**Oharra:** telefonoa USB konexio gisa erabiltzean, pantaila nagusia ikusi behar da eta tapak irekita egon behar du.

## Telefonoaren USB biltegiratze masiboaren funtzioa erabiltzea

Telefonoak USB ataka txiki bat du eta USB kable batekin ordenagailu batera konekta daiteke.

Telefonoa ordenagailu batera konektatzea

**Telefonoaren tapa irekita eta telefonoa piztuta:**

**1** Jarri telefonoa modu inaktiboan (amaitu dei aktiboak eta/edo irten menu guztietatik pantaila nagusira itzultzeko).

**Oharra:** Telefonoa modu inaktiboan ez dagoenean USB kable bat konektatzen saiatzen bazara, telefonoa modu inaktiboan jartzeko mezu bat bistaratuko da.

**2** Konektatu kablea telefonora eta ordenagailuan libre dagoen USB ataka batera.

Telefonoa eta ordenagailua konektatuta daudenean, ordenagailuaren “Mi PC” leihoan “MS_DEVICE” izeneko USB biltegiratze masiboko karpeta bistaratzen da, “imagen” eta “sonido” azpikarpetekin.

**3** Telefonoa USB biltegiratze masiboko moduan erabiltzeari uztean, deskonektatu kablea telefonotik eta ordenagailutik.

Kablea telefonotik deskonektatzean, telefonoa berehala berrabiarazten da eta modu inaktibora itzultzen da. Kablea berehala konektatzen badiozu berriz telefonoari, mezu hau bistaratuko da: **Tel. ocupado. Reconec. el cable al ver pant. ppal.**

## Konexio-iradokizunak

- Telefonoa ordenagailu batera konektatzean, baliteke ordenagailuan instalaziorako laguntzaile bat azaltzea. Hori horrela da ordenagailua USB gailu batekin komunikatzen saiatzen ari delako. **Ez da kontrolagailurik instalatu behar telefonoa ordenagailura konektatzean; ezeztatu instalaziorako azaltzen den laguntzailea eta jarraitu konexioarekin.**
- Telefonoa ordenagailura konektatzen baduzu eta ordenagailuak ez badu telefonoa berehala ezagutzen, deskonektatu telefonoaren USB kablea eta konektatu berriro.

## Telefonoaren USB atakaren bidez kargatzea

Telefonoaren bateria kargatzeko, hau egin dezakezu: kable baten bidez telefonoaren USB ataka txikia ordenagailuaren potentzia handiko USB atakara konektatu (ez potentzia txikiko ataka batera, adibidez, teklatuaren USB atakara edo bus bidez elikatutako USB kontzentragailura). Normalean, potentzia handiko USB atakak ordenagailuan bertan egoten dira.

Telefonoak eta ordenagailuak piztuta egon behar dute, eta ordenagailuan software-kontrolagailu egokiak izan behar dira instalatuta. Software-kontrolagailua ez da telefonoarekin batera etortzen; helbide honetan eskura daiteke: www.motorola.com.

Ordenagailuaren ahalmenaren araberako azkartasunez kargatuko da. Baliteke, telefonoa erabat kargatzeko hamabi bat ordu behar izatea.

# Oinarrizko kontzeptuak

Ikus 1. orrialdea, telefonoaren oinarrizko diagrama ikusteko.

## Pantaila

Telefonoa piztean, *pantaila nagusia* agertzen da. Pantaila nagusitik zenbaki bat markatzeko, sakatu zenbaki-teklak eta [⊙].

**Oharra:** baliteke pantaila nagusia ez izatea hemen azaltzen dena bezalakoa, operadorearen arabera.




[☰] bistaratzean, menua irekitzeko sakatu [☰]. Pantailako beheko izkinetako etiketek funtzio-teklen uneko funtzioak adierazten dituzte. Sakatu pantailako eskuineko edo ezkerreko funtzio-tekla etiketan azaltzen den funtzioa exekutatzeko.

Funtzio-teklen kokapena ikusteko, ikus 1. orria.

Pantaila nagusian, sakatu ◆ gora, behera, ezkerrera edo eskuinera, menuaren oinarrizko funtzioak irekitzeko. Pantaila nagusiko ikonoak bistaratuta edo ezkutatuta egotea hauta dezakezu.

**Joan hona:** Sakatu ☰ > **Personalizar** > **Pantalla Principal** > **Teclas Principales** > **Iconos**

## Egoeraren adierazleak

Pantaila nagusiaren goiko aldean egoeraren adierazleak ager daitezke:




1 **Estalduraren adierazlea:** barra bertikalek saREAREN konexioaren intentsitatea adierazten dute. Ezin da deitu ezta deirik jaso ere ⁝ agertzen denean.

2 **GPRSaren adierazlea** ⊕ zure telefonoak abiadura handiko GPRS sare-konexioa erabiltzen ari dela adierazten du.

Adierazleek PDP ingurune aktiboa edo datu-pakete erabilgarria bistaratzen dituzte.

3 **Datuen adierazlea:** zer konexio-egoera dagoen adierazten du.

- = datu-paketeen transferentzia segurua
- = aplikazio-konexio segurua
- = CSD (Circuit Switch Data) dei segurua
- = datu-paketeen transferentzia ez da segurua
- = aplikazio-konexioa ez da segurua
- = CSD deia ez da segurua

4 **Desplazamendu-adierazlea:** telefonoa berea ez den sarea bilatzen edo erabiltzen ari dela adierazten du. Adierazleak ▲ bistaratzen du.

5 **Linea aktiboaren adierazlea:** bistaratzen du dei bat aktibo dagoela adierazteko, edo deiak desbideratzeko funtzioa aktibatuta dagoela adierazteko. Hauek dira telefono-linea dualen adierazleak (SIM txartel bat erabiltzen da bi telefono-lineatarako):

- = 1 linea aktibatuta
- = 1 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta
- = 2 linea aktibatuta
- = 2 linea aktibatuta, deiak desbideratzeko aukera aktibatuta

6 **Mezuen adierazlea:** mezu berri bat jaso duzula adierazten du. Adierazleak hauek dira, besteak beste:

- = testu-mezua
- = ahots-postontziko mezua
- = ahots-postontziko mezua eta testu-mezua
- = txat-saioa aktibatuta

7 **Txirrin-motaren adierazlea:** txirrin-motaren konfigurazioa bistaratzen du.

- (icon) = txirrin altua
- (icon) = txirrin baxua
- (icon) = bibrazioa
- (icon) = bibratu ondoren txirrina
- (icon) = isilik
- (icon) = bibrazioa eta txirrina

8 **Bateriaren mailaren adierazlea**: barra bertikalek bateriaren karga-maila adierazten dute. Telefonoak **Batería Baja** adierazten duenean, kargatu bateria.

# Egoera-ikonoa

Egoera-ikonoek sarrerako deien, mezuen eta bateriaren egoera adierazten dute.



| Alerta /ikonoa |
|---|
| **deien ikonoa** |
| Ikonoaren argi berdeak bizkor dar-dar egiten du zenbaki ezagun batetik deiak jasotzean; eta mantso dar-dar egiten du zenbaki ezagun baten dei galdu bat badago.<br><br>Ikonoaren argi laranjak bizkor dar-dar egiten du zenbaki ezezagun batetik deiak jasotzean; eta mantso dar-dar egiten du zenbaki ezezagun baten dei galdu bat badago. |
| **mezuen ikonoa** |
| Ikonoak dar-dar urdina egiten du 30 minutuz, testu- edo ahots-mezu berri bat badago. |
| **bateriaren ikonoa** |
| Ikonoak dar-dar laranja egiten du bateriak energia gutxi duenean; eta piztuta dago bateria kargatzen ari denean. |

# Menuak

Pantaila nagusian, sakatu menu nagusira sartzeko.




1 Menuan nabarmenduta dagoen funtzioaren ikonoa.
2 Nabarmendutako menu-funtzioa hautatzeko
3 Gora, behera, ezkerrera edo eskuinera joateko.
4 Sakatu tekla hau menuko nabarmendutako funtzioa hautatzeko.
5 Menu nagusitik ateratzeko.
6 Aldaketarik egin gabe menutik irteteko.

Operadorearen eta kontratu-motaren arabera, menu nagusian ikono hauek egon daitezke.

| Menuko funtzioak |
| --- |
| Agenda |
| Ultimas Llamadas |
| Mensajes |
| Herramientas |
| Juegos |
| Opciones WAP |
| Multimedia |
| Personalizar |
| Configuración |

## Funtzio bat hautatzea

Funtzio batzuetan sartzeko, nahitaezkoa da zerrenda bateko aukera bat hautatzea.




Sakatu **Ver** nabarmendutako aukerari buruzko informazio gehiago ikusteko.

Nabarmen-dutako aukera

Sakatu **Atrás** aurreko pantai-lara itzultzeko.

Sakatu ≡ azpimenua irekitzeko.

- Sakatu ⁘ gora edo behera, nahi duzun aukera nabarmentzeko.
- Zenbakizko zerrenda bada, sakatu zenbaki-tekla bat aukera nabarmentzeko.

- Alfabeto-ordena duen zerrenda batean, sakatu tekla bat behin eta berriz letrak hautatzeko eta gehien hurbiltzen den zerrendako aukera nabarmentzeko.
- Aukera batek parametro posibleen zerrenda bat bistaratzen duenean, sakatu ezkerrera edo eskuinera nahi duzun parametroa hautatzeko.
- Aukera batek hainbat zenbakizko balioren zerrenda duenean, sakatu zenbaki-tekla nahi duzun balioa ezartzeko.

# Testua idaztea

Funtzio batzuen bidez testua idatz daiteke.




## Testua idazteko metodoa hautatzea

